

EUSKALKIETAKO HITZEN MORFOLOGIA FINKATZERA-KOAN AGERTZEN DEN ARAZO BATEZ

Bilbo, 1996-XI-29

Beñat Oihartzabal

Hiztegi batua moldatzerakoan behin baino gehiagotan gertatu zaigu he-dapen mugatuko hitzen edo euskalki hitzen onartzea, batasunari begira beste hitz bati lehentasuna emanez batzuetan, beste ezer ondoan jarri gabe besteetan.

Galdera egina izan da horrelako euskalki hitzak baliatuz sortzen diren forma eratorrietan eta jokatueta ea euskalkiaren morfologia bereziari jarraiki behar zitzaion nahitaez, ala morfologia batuaren arabera erabiltzen ahal ziren haiek ere, forma berriak sortuz batzuetan, gutiago erabilitako formak hobetsiz beste batzuetan.

Adibidez, eskuen artean ditugun bi kasuren aipatzeko, *erran* aditza, *esan* aditzaren orde esaten duten euskaldun gehienek *erraiten* eta *erraitte* formak erabiltzen dituzte, idazterakoan behintzat, eta halaber *ediren* aditza *edireiten* forman agertzen ohi da testuetan ez edireten forman.

Nola onartu behar ditu Euskaltzaindiak hitz horiek: *errate(n)* forman orain artino horrelako kasuetan hartu duen biderari jarraikiz (adib. *emate(n)*), ala *erraitte(n)* forman gaur egun aditz hori darabilten euskaldun gehienek egiten duten moduan?

Halaber, demagun bihar Euskaltzaindiak geroko aspektu marka gisa beti -ko onartzen duela, zer moldetan erabiliko dira euskara batuan *jin*, *erran*, edo *ediren* adizkiak geroko aspektuan: *jinen* edo *jingo*, *erranen* edo *errango*, *edirenen* edo *edirengo*? Beste aldera ere egin daiteke galdera hau. Euskaltzaindiak -n batez bukatzen diren partizipioekin, -en hobesten balu geroko aspektua seinatatzeko, zer formatan moldatuko dira euskara batuan, hegoaldean beregainki edo bakarrik agertzen diren *eten* edo *irten* bezalako adizkiak: *etenen* ala *eten-go*? *irtenen* ala *irtengo*?

Gogoan har, kasuak ez direla horretan gelditzen, eta orain artino Euskaltzaindiak beti batasunaren koherenziaren alde jokatu duela, adibidez *abestu* edo *aurkeztu* bezalako aditzentzat *abes* edo *aurkez* aditzoinei lekua utziz, nahiz aditzoin forma horiek franko arradoak izan mendebaldeko tradizioan. Ortografian ere horrela egin da. Adibidez, heskariekin aspirazioa ez markatzeko era-

bakia hartu ondoan, hitz guzietan aplikatu zaie lehe hori, agertzen ziren euskalkietan aspirazioa erregularra zuten hitzekin ere bai: *akitu*, *borta*, *eki*, etab...

Zentzuzkoa izan da orain artinoko jokabide hori, eta ez da arrazoirik ikusten orain haren baztertzeko eta euskal hiztegi batua salbuespen dialektalez betetzen hasteko. Gehienez ere, bide bat irekirik utz daiteke, morfologia batuaren ondoan, euskalkiaren tradizioari dagokiona ere onartzeko.

Badirudi, beraz, kontrako arrazoi berezirik ez denean behintzat printzipio hau onar daitekeela: euskalkietako hitzak euskara batuan sartzerakoan eta erabiltzerakoan, morfologia batuaren arabera jokatuko dira (inflexioan nola eratorbidean).